

MOZIOA, UDAL GOBERNUAK ORDENANTZAK BETEARAZTEA DELA-ETA

Aitziber San Roman Abetek, EAJ/PNV udal taldeko zinegotziak, Udal Batzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri honako MOZIO hau aurkezten du, *udal gobernuak ordenantzak betearaztea* dela-eta, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Zerbitzu Orokorretako Batzordean 2015eko apirilaren 20ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Pasa den otsailean EAJ-PNV udal taldeak galdera aurkeztu zion udal gobernuari jakin ahal izateko zenbat zigor espediente ireki diren 2014 urtean zehar eta espediente horiek zein ordenantza eta ordenantza bakoitzaren zein artikulua urratzeagatik jarri diren. Datuak eskuratuta, harridura sortzen dute zenbait kasuk; eta hala, zibismoaren ordenantzaren 43. artikulua urratzeagatik -hau da, kalean kartelak eta pankartak baimenik gabe jartzeagatik- ez da legealdi osoan espediente zigor bakar bat ere ireki; eta kalean edateagatik sortutako zarategatik 8 (eta ez dugu lortu jakitea 8 espedienteak tberna berari ireki zaizkion edo ez; ez eta zein taberna diren ere).

Datu horiek argi uzten dute gure hirian ez direla ordenantza guztiak betearazten; eta hori dela-eta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten dio Udalbatzarrari, onar dezan:

- Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio betearaz ditzala indarrean dauden ordenantza guztiak.

Donostian, 2015eko apirilaren 24an

Aitziber San Roman Abete
EAJ/PNV udal taldeko zinegotzia